

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko maiatzaren 8tik maiatzaren 12rako astea

INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

ASTE HONETAN MERKATUETAN

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

INGALATERRAKO BANKUAREN BILERA

Hazkundearen eta inflazioaren aurreikuspenak

	Hazkundera		Inflazioa	
	Orain	Aurrekoa	Orain	Aurrekoa
2017	% 1,90	% 2	% 2,80	% 2,70
2018	% 1,70	% 1,60	% 2,40	% 2,60
2019	% 1,80	% 1,70	% 2,20	% 2,40

Datuaren analisisia

Ingalaterrako Bankuak bere diru-politikari bere horretan eustea erabaki zuen (7 aldeko boto eta aurkako batekin). Horrez gain, hazkundearen aurreikuspenen berri eman zuen, eta aldaketak oso txikiak izan ziren otsailarekin alderatuta. Hala ere, epe motzean Erresuma Batua gutxiago haziko dela jaso dute aurreikuspenetan (% 1,9 2017an), familien gastua okertzearen ondorioz. Inflazioari dagokionez, ordea, datozen hiletan % 2ko helburua gaitutuko duela berretsi zuen BoEk, eta 17ko laugarren hiruhilekoan % 3 ingurukoa izango dela.


Adierazlearen azalpena

Ingalaterrako Bankua (BoE) Erresuma Batuko banku zentrala da. Herrialdearen diru-politika zehazteaz arduratzen da, bere Diru Politikako Batzordearen bidez. Erresuma Batuko Gobernuaren Banku Zentrala da, eta, besteak beste, libera esterlina jaulkitzea eta bere zirkulazioa kontrolatzea dira bere eginkizun nagusiak.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Alemaniarako industria-ekoizpenak hilean % 0,4 egin zuten atzera, analistek espero zuten % 0,6ko jaitziera hobetuz. Jaitziera horren atzean, energia-ekoizpenaren % 2,5eko beherakada dago. Frantziako industria-ekoizpena ere eman zen ezagutzera. Aurreko hilarekin alderatuta, datuak % 2 egin zuten gora, eta espero zen datua gainditu zuen (% 0,6), otsailean behera nabarmen egin ondoren (-% 0,7). Garraio-materialen eta ekipo-ondasunen indarrak eragin zuten gorakada hori.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisia

Apirileko Estatu Batuetako inflazioak % 2,4tik % 2,2ra egin zuen behera, adostasunez espero zen datua baino hamarren bat beherago. Gainera, azpiko indizeak antzeko bilakaera izan zuen, % 2tik % 1,9ra jaitsi baitzen (aurreikusitakoa, % 2). Hileko datuei begiratuta, apirilean, prezioek % 0,2 egin zuten gora, eta hileko azpiko inflazioak, aldiz, % 0,1 gora.

Energiaren prezioaren gorakada apalagoak eragin du atzeraldi hau. Aurreko urtearekin alderatuta, energia % 9,3 garestitu zen, mailarik apalena 2016tik. Bestalde, elikagaien prezioak % 0,5 egin zuen gora.


Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: KPI



Datuaren analisia

Kontsumorako prezioen indizea (KPI) urte arteko % 1,2 igo zen apirilean, martxoan baino hiru hamarren gehiago, kontsumoaren gorakadaren eraginez. 2017 osorako, Gobernuak zehaztu zuen inflazioa % 3 ingurukoa izango zela, nahiz eta 2016an, antzeko helburu batekin, KPIaren urte arteko igoera % 2koa izan zen soilik.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
05/15	Japonia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 1.8
05/15	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 10.8
05/15	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 7.0
05/15	Italia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	--
05/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	7.5
05/16	Frantzia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 1.4
05/16	Italia	Urte arteko WDA PMIa	% 0.8
05/16	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 2.6
05/16	Eurogunea	Balantza komertziala SA	--
05/16	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	80.9
05/16	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	% 1.7
05/16	Estatu Batuak	Hileko eraikuntza-baimenak	% 0.2
05/16	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.4
05/17	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
05/17	Italia	Balantza komertziala guztira	--
05/17	Erresuma Batua	Erregistratutako langabezia	--
05/17	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 1.9
05/18	Japonia	Hiruhileko BPGd SA	% 0.4
05/18	Frantzia	ILO Langabezia-tasa	% 10.0
05/18	Erresuma Batua	Txikizkako salmentak	% 2.1
05/18	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
05/18	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	19.5
05/18	Estatu Batuak	Bloomberg aurreikuspen ekonomikoak	--
05/18	Estatu Batuak	Lider indizea	% 0.3
05/19	Alemania	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 3.2
05/19	Eurogunea	NSA kontu korrontea	--
05/19	Italia	Kontu korrontearen balantza	--
05/19	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-3.0

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Munduko burtsa nagusiek itxiera mistoak izan zituzten. European, nabarmentzekoa izan zen Ibexaren jaitsiera (% 2,4), bereziki Bankuen eta Telefonicareen emaitza txarren ondorioz. Londreseko burtsak, aldiz, erorketak saihestu zituen (+% 1,89), farmazien eta energiaren sektoreen bilakaera onari esker. Wall Streeten, itxiera negatiboak, Nasdaq izan ezik, itxiera positiboa izan baitzuen (% 0,34). Nikkeiak eta oro har gorakorrek portaera ona izan zuten. Astea lasaia izan zen eta sorpresa gutxi gertatu ziren. Iragan ostegunean, Ingalaterrako Bankuaren bilera egin zen, eta erakundeak aldaketarik egin gabe eutsi zion bere diru-politikari. Horrez gain, hazkunde aurreikuspenak apaldu eta inflazioarenak igo zituen. Horrekin batera, Europako Batzordeak bere aurreikuspenen berri eman zuen. 2017ko EDBren hazkundearen aurreikuspenak gora berrikusi zituzten (% 1,6tik % 1,7ra), eta bere horretan mantendu zuten 2018koa (% 1,8). Lehenengo hiruhilekoko enpresen emaitza gehienak argitaratu ondoren, hala European nola AEBetan, nabariak dira bi digituko hazkundeak.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Local)	1.459,60	0,02	6,99
IBEX 35	10.897,00	-2,14	16,52
DJ EURO STOXX 50	3.637,52	-0,58	10,55
DJ STOXX 50	3.270,89	0,81	8,65
FTSE	7.435,39	1,89	4,10
S&P 500	2.390,90	-0,35	6,79
Dow Jones	20.896,61	-0,53	5,74
NASDAQ	6.121,23	0,34	13,71
NIKKEI 225	19.883,90	2,25	4,03
MSCI EMERGENTES (Lo	53.474,36	2,16	12,22
MEXBOL	49.426,08	-0,12	8,29
BOVESPA	68.221,94	3,82	13,27
SHANGHAI	3.229,13	-0,62	-0,63
Rusia Rts Moscú	1.099,75	1,30	-4,56

ERRENTA FINKOA:

Aste lasaia "core" zor-merkatuetan, hala European nola Estatu Batuetan, non interes-tasek ia ez zuten aldaketarik izan. Hamar urterako bonu amerikarraren errentagarritasunak 2 op egin zuen atzera, % 2,33raino, eta hamar urterako Alemaniako tasa, aldiz, 3 op jaitsi zen, % 0,39raino. Zor espainiarrari dagokionez, hamar urteko bonuari eskatutako errentagarritasunak 7 op egin zuen gora, % 1,63raino, eta arrisku-prima 123 punturaino heldu zen. Kreditu-merkatuan aldaketa gutxi.

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,68	0,00	0,09
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,25	0,04	0,03
EE.UU. 2 AÑOS	1,29	-0,02	0,10
ALEMANIA 10 AÑOS	0,39	-0,03	0,18
ESPAÑA 10 AÑOS	1,63	0,07	0,24
EE.UU. 10 AÑOS	2,33	-0,02	-0,12
ALEMANIA 30 AÑOS	1,19	-0,01	0,25
ESPAÑA 30 AÑOS	2,97	0,11	0,35
EE.UU. 30 AÑOS	2,99	0,01	-0,08
Spread de credito (pb)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	63,03	-0,46	-9,01
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	256,95	1,14	-31,75

DIBISAK/LEHENGAIK:

Euroaren balioa apenas aldatu zen dolarraren aldean, eta truke-tasa 1,09\$/€-an geratu zen. Yenaren aurrean ere balioari eutsi zion, eta egonkor mantendu zen Liberaren aurrean. Lehengaiei dagokionez, AEBetako inbentarioak aurrekusi baino gehiago jaitsi zirenez, petrolioaren prezioak % 2,92 egin zuen gora astearen amaieran. Urrearen balioa, bestetik, % 0,53 igo zen, 1.228,13 \$/ontza mailaraino.

Dívisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,09	-0,65	3,53
Yen / Euro	123,84	-0,06	0,65
Libra/ Euro	0,85	0,00	-0,73
Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	50,32	2,92	-9,19
Oro	1.228,13	0,53	6,58

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.